

(!) Oharra:

jabego intelektualaren inguruko legediak irudien erabilera galerazten digu.

Hori dela eta, dokumentu honek ilustraziorik ez darama.

Irudiak ikusteko, ikur grisén gainean klikatu.

DISEINU GRAFIKOA PUBLIZITATEAN

00. ERREFERENTZIA AIPAGARRIAK

Sortzaileak baino, "birsortzaileak" garela esan beharko genuke. Izan ere, bizitzan zehar ikusitakoak berrantolatzen eta konbinazio berriak egiten ibiltzen gara. Aurretik ikusitakoak gure geroko lanen lehengaia osatuko dute. Zenbat eta gehiago ezagutu, hainbat eta aukera abaeratsagoak izango ditugu.

Beraz, mendebaldeko estetikak segitu duen garapenari begiratzea komeni zaigu. Ondorengo pintzelkaden bitartez, XX. mendeko diseinuaren garapena nolakoa izan den asma dezakegu. Gutxieneko erreferentzia batzuen laburpena duzue, besterik ez.

*“Iragana: gure seaska, inolaz gure kartzela.
Iragana inspiratzeko erabili behar, ez imitatzeko;
aurrera jarraitzeko, ez errepikatzeko”.*¹

Israel Zangwill

00.1 ARTS & CRAFTS

Mugimendu hau XIX mendeko azken herenean sortu zen, Erresuma Batuan, Victoria erreginarenean garaiko erromantizismoaren hegalean. Industrial Iraultza gori-gorian zegoen orduan, ekoizpen prozesuak guztiz eraberrituz.

Ordurarteko mugimendu artistiko akademiazaleek bizkarra eman zioten ekoizpen masiboaren garai berriari. Ez zituzten haintzat hartzen prozesu industalaz sortutako produktuen balioa. Egia esateko, ikaratuak zeuden horrenbesteko aldaketekin. Hau dela eta, Arte Aplikatuaren mugimendua sortzen da (*Arts & Crafts*, ingeleraz), industria-produktuei erizpide estetiko finagoa ezarri nahian.

Izan ere, industria-produktuak nahiko zatarrak ei ziren, artisauek egindakoekin parekatuz. *Arts & Crafts*en jarduera arlo desberdinetara hedatu zen: liburugintza, estanzapuzioa, ohialgintza, ornidurak, haltzariak, eta abar.

¹ Aipuaren iturria: brainyquote.com



> **Aubrey Beardsley.** *Salomé* (1894) eta *Ali Baba* (1897) liburuentzako azalak. Zalantzarik gabe, garaiko ilustratzaile trebeenetakoa. Japoniako marrazkien eragina bistan da.

ekoizpen modernoa eta kezka estetikoak batzeko lehenbiziko saioa *Kelmscott Press* inprimategian dugu (1881). William Morrisen zuzendaritzapean, produkzio masiboari aurretiko artisauen kalitatea gehitu nahi zioten. Diseinuaren aitzindari hauek itxura dotore eta atseginezko argitalpenak lortu zituzten. Hala ere, estetika aldetik zeharo atzerakoiak azaldu ziren, Erdi Aroko ikonografia berreskuratuz.

00.2 MODERNISMOA (ART NOUVEAU)

Ingalaterran abiatutako korrante hau laster Europako beste hainbat lurraldetara hedatu egin zen, baita Estatu Batuetara ere. Industriarekin batera sortutako burgeseria berriak bere unibertso estetiko propioa aldarrikatzen zuen. Behar honi erantzunez, erabateko giro goxoa eta xarmantgarria eskeiniko dion mugimendua agertu zen: Modernismoa.

Toki bakoitzean, izen desberdinak izan zen batailatua: *Art Nouveau* (Frantzia); *Modern Style* (Britainia Handia); *Jugendstil* (Alemania); *Secession* (Austria); *Liberty* (Italia) eta *Modernismo* Espainia aldean -Catalunyan batik bat-.



> **Alphonse Mucha.** Ilustrazio publizitarioa. 1896. Modernismoaren kartelgile paradigmaticoa. Garaiko ezaugarri estetikoak hoberean biltzen dituen artista.

Modernismoaren sustraiak erromantizismoan daude. Hots, errealtate hurbiletik ihes egite nahian. Aitzindariak Sinbolismoa, Prerraphaelitak eta Erdi Aroko motiboak dira, *Arts & Crafts* kasuan bezalaxe. Ihes egite nahiak lurralde exotikoetako estetika bilatzera bultzatu zituen: Japoniako marrazkiak, Bizantzioko orfebreria eta mosaikoak, Egipto zaharra... Ez da kasualitatea garai kolonialarekin batera etortzea.

Estiloari dagokionez: linea kurbatsua, apaingarritasun oparoa, forma organikoak eta konposizio asimetrikoak. Erabat ameslari eta hedonista.

Koloreetako inprimagailu litografikoaren asmakuntzak kartelgintzaren aroa zabaldu egin zuen. Publizitate aldetik, aldaketa iraultzailea suposatu zuen. Denbora laburrean ale askotako tiradak egin ahal izan ziren, hiriko hormak iragarkiz betez. Garai hartan Parisen, kartelgintzaren maisu pioneroak ibili ziren, Toulouse-Lautrec eta Chereten mailakoak.



> **John O. Parry.** *A London Street Scene*. 1835. Modernismoa eta publizitate masiboak garai berdina sortu ziren.



> **Jules Chéret.** *Pantomimes Lumineuses*. 1896. Kartelgintza modernoaren aitzindaria. Oraindik kutsu piktoriko handia atzematen zaio.



> **Henri Toulouse-Lautrec.** *Jane Avril*. 1899. Kartel sinpleagoekin ekin zion. Grafika publizitarioaren soiltasunaren lehenbiziko urratsak eman zituen.

Egile modernista aipagarrienak:

Alphonse Mucha, Aubrey Beardsley, Jules Cheret, Henri Toulouse-Lautrec, Pierre Bonnard, Charles R. Mackintosh, Jan Toroop, Gustav Klimt, Alfred Roller...

00.3 PLAKATSTIL

1910 urtearen inguruan modernismoaren estilo historizista oraindik bogan zgoen. Hala ere, aipagarria da Alemanian sortutako beste diseinu-korrante hau: *Plakatstil*, literalki "poster estiloa".

Oso erizpide modernoak erabiltzen dute publizitatean. Industriaren ekoizpen-moduarekin bat ez datorren erromantizismoa eta fantasia baztertu egiten dute garbitasun funtzional baten mesederako. Dohaneko apaingarri guztiak kendu egiten dituzte, kartelak nabarmenki sinplifikatuz.

Dotorezia, neurri handi batean, sinpletasun horretan datza.



> **Lucian Bernhard**. *Steinway & Sons*. 1910.
Diseinatzaile aleman hau Plakatstil estiloaren adierazle garbiena da.

Iragarki hauek zuzenean harira jotzen dute: markaren izena, produktuaren ilustrazio ikonikoa eta fondo laua. Komunikazio garbiaren aldeko oso apustu interesgarria egin zuten. Ondoren nagusituko den arrazionalismoaren aitzindariak dira.

Garai beretxuan, Adolf Loos arkitekto austriarrak *Apaindura eta Krimena* datzi zuen, apaingarrien erabilera gogorki kritikatu.

Ez da, dagoeneko, diseinu indibidualarekiko lilura bilatzen, objetibotasuna baizik. Poster "artistiko" bat baino, osoko itxura sendoa, koherentzia, egitura eta seriotasuna preziatzen dute. Formak, edukinaren zerbitzura.

Tipografia irakurterraza garatuko dute. Kaligrafia baztertu eta letra tipo linealak maiz erabiltzen hasiko dira (*Akzidenz Grotesk* edo *Franklin*, esate baterako).



> **Peter Behrens**. *AEG* markaren diseinua. 1908.
Diseinugile honen ekarpenik nagusia AEG markaren irudia bateratzea izan zen. Logotipotik hasita, objetuen diseinuraino. Irudi korporatiboaren aplikazioaren lehenbiziko kasua dugu.

Lehendabiziko irudi korporatibo bateratua korrante honen diseinugile baten eskutik etorri zen. Alemaniako AEG enpresak Peter Behrens hautatu zuen euren irudi osoari nortasun sendo eta berezkoa emateko. Logotipoaz aparte, publizitateko lanak egin zituen, bai eta gailu batzuren diseinua ere. Orduetik aurrera marka guztiek halako batasun estetiko bilatu egin dute.

Plakatstil mugimenduaren kasuan ere, "*less is more*".

Honetan ibili ziren egile aipagarrienak:

Lucian Bernhard, Peter Behrens, Ludwig Hohlwein, Carl Diem, Lehmann Steglitz, Hans Rudi Erdt...

00.4 INDUSTRIAREKIKO MIRESPENA

XX mendearen hasierarako, aurrerapen teknologikoak sahiestezinak dira. Artistek industriarekiko eta makinarekiko erakarpen estetikoak erakusten hasi ziren. Oraindik nagusi zen historizismo kontserbadorearen aurrean, talde sutsu batzuk sortuko dira: "abangoardiak".

ABANGOARDIA HISTORIKOAK: bere garaiko gustu eta ideiatasun alderatu egin ziren talde artistiko aurrerakoiak. Mundu-Gerrate bitarteko mugimendu artistiko berritzaileak izan ziren. Garaiko aldakuntza filosofiko eta zientifikoen ondorioz, oso ekoizpen oparoa izan zuten. Oso era desberdinetako korronteak aurkituko ditugu, baina den-denak asmo apurtzailekoak: Kubismoa, Futurismoa, Da-Da, Konstruktibismoa edo eta Surrealismoa.

Euren nortasun apurtzaileaz ideia bat edukitzeko, hona Marinettik *Manifestu Futuristan* bota egin zuena: "*metrailaren gainean dabilen automobil zaratatsu bat Samotraziako Garaipena baino ederragoa da!*"².



> *Atenea Niké ("Victoria de Samotracia")*. S. II a.C.
Arte Helenistikoaren eredurik preziatuenetako bat.



> **Filippo Tommaso Marinetti**. *Parole in Libertá*. 1912.
Olerki futurista. Apurtzearen nahia forman zein edukinan nabari da.

Abangoardiek tradizioarekin apurtzearen ideia ezarri zuten, gerora arte garaikidean hainbesteko oihartzuna izango zuen joera. Industriak berak artisautzari bizkarra eman zion moduan, Mugimendu Modernoak iraganeko etikari uko egingo dio, proiektu eta diseinu erabat berriei eutsiz.

00.5 KONSTRUKTIBISMOA

Espresio artistikoen iraultza jaioberriko Sobietar Batasunan ederki garatu zen. Lurrean hartan, bat-batean, errealismo neoklasikotik abangoardia hutsetara pasa ziren. Lehenbiziko aldiz, abangoardia talde batek ofizialtasunaren babes hartu zuen. Stalinen diktadura etorri arte, behintzat, ongi aprobetxatutako aukera izan zen.



> **Aleksandr Rodchenko**. *Knigi*. 1924.
Indar handiko diseinua. Konposizio geometriko zorrotza, forma lineal sendoak eta tipografiaren lehen mailako presentzia.

Konstruktibistek artea eta eguneroko bizitza elkarganatu nahi zuten. Euren ustez pintura eta eskultura tradizionala erabat atzeratua zegoen: jendeak ez du museotara hurbiltzeko joerarik. Objeto utilitarioak dira jendearen bizimoduaren kalitatea hobegotzen dutenak, eguneroko bizitzan aurkitzen ditugunak, alegia. Ondorioz, konstruktibistak arte erabilgarrian arituko dira.

Ezaugarri formal oso garbiak erakusten ditu: argazkiak ilustrazioa ordezkatzeko du; kontraste handiko kolore konbinaketak, tinta lauak erabiliz; tipografia lineal sendoa; eta izugarriko indarrezko konposizioak. Diagonalek dinamismoa dakarte eta simetriak potere handia gehitzen dio.

Garai hartarako, benetan diseinu fresko eta abangoardiakoa izan zen, ondorengo estilo

² Manifesto Futuristaren 4. puntua, [wikipediatik](#) jasoa.

askotan eragin izan duena. Baina forma gogor hauek ez dira nolanihi hautatuak izan. Oinarrizko planteamendu ideologikoaren isla dira. Bi dira, gutxienez, Konstruktibismoaren sustraiko ideia nagusiak:

- iraultzan garaile izanaren baikortasuna
- modernotasun industrial

Makinaren estetikaz guztiz liluraturik zeuden. Industriak gizakion arteko berdintasuna eta askatasuna behin betirako ekarriko zuela sinisten zuten. Ez da arraroa, beraz, halako forma gogorrek erabiltzea, kasik burdindegi batetik ateratako altzairu piezak bailira. Egitura sendoak, indarra eta trinkotasuna gogor erakusten dutenak. Xehetasunak, bestalde, guztiz kanpo geratzen dira. Izan ere, "masaren" poterea goraiatzeko zuten, gizabanakoaren xehetasunei muzin eginez.

Konstruktibismoaren izen aipagarri batzuk:

Aleksandr Rodchenko, Vladimir Mayakovsky, Gustav Klutss, Liubov Popova, El Lissitzky, Stenberg anaiak, Vladimir Tatlin...

00.6 BAUHAUS

Alemanian, Gerrate Handiaren osteko krisialditik salto egiteko nahiari jarraituz, 1919an *Staatliches Bauhaus* eskola martxan jarri zuten. Walter Gropius zuzendari, "sozialismo utopikoaren" korronteari eutsi zioten. Hau da: teknologia berriak eguneroko bizimoduaren hobekuntzarako erabili, klase sozial guztien mesederako.



> **Herbert Bayer.** *Universal*, tipo de letra. 1925.
Artean utopikoa zen gizarte moderno eta funtzional batentzako tipografiaren diseinua.

Grafikan baino, diseinuaren planteamendutan izan zuten garrantzia. Ikerkuntza eta proiektuaren metodoa ezarri zuten. Iraganeko tradizioari begiratu gabe "zerotik" abiatu nahi zuten, aurrera begira eta eskura zituzten baliabideei probetsurik handiena atereaz.

Mugimendu Modernoaren eredu bikaina dugu. Azalezko itxurakeriaren kontra, objektuaren egiturari jartzen zuten atentzio osoa. Arrazionalismo zorrotzez, ekoizpen prozesua hobetzen ibili ziren. Egitura, funtzionaltasuna, fabrikatze kostearen merkeagotzea... zeharo estilo modernoazko ondorioa lortuz.



> **Marcel Breuer.** *Wassily* izeneko aulkia, Kandinskyren omenez. 1925.
Diseinu hauen soiltasun formalak, haren funtzionaltasunarekin batera, erabateko gaurkotasuna ematen dio.
Ordurarteko inolako besaulkian inspiratu gabe, Breuerrek diseinu guztiz berriari eutsi zion. Zerotik abiatu zen.

Diseinugintza modernoa Bauhaus eskolaren erizpideetan oinarritzen da: sortzen den behar konkretu bakoitzari dagokion irtenbidea ematea, funtzionaltasunak eta ekonomiak alde estetikoak baldintzatzen dutelarik.



> **Herbert Bayer.** *Hans Poelzig* arkitektoaren erakusketarentzako kartela. 1926.
Garbitasuna, ordena eta informazioa ederki mailakatua.



> **Joost Schmidt.** *Bauhaus Ausstellung*. 1923.

Abstrakzio geometrikoa, pentsamolde arrazionalistaren islada.

Oso adierazgarria da tipogintzan egindako lana. Besteak beste, geometriaren bidez, hizkien arrasto estilistiko oro ezabatzen saiatu ziren. Komunikaziorako beharrezkoak ziren elementu estrukturalak besterik ez zituzten onartu. Helburua perfekzio funtzionala zen. Interesgarria, ere bai, letra larri / xehearen banaketari buruzko iritzia: fonetikoki berdinak direnez, banatzeak zentzurik ez zuela pentsatu zuten. Hortaz, zenbait tipo misto diseinatu zituzten, arrakasta askorik gabekoak baina. Hala eta guztiz, gaur egun oso erabilia den Futura bezalako tipoa Bauhausen hegaltzen sortu zen.



> **Paul Renner.** Futura, letra tipo geometrikoa. 1928.

Alfabeto arrazionalista hau funtsezko forma geometrikotan oinarritzen da: laukia, hirukoa eta zirkulua.

Arazionalismoa alde guztietatik somatzen zaie: abstrakzio geometrikoa, egituraren linea garbia, kolore lauak, komunikazio argi eta zuzena.

Edertasuna funtzioaren ondorioz berez sortzen dela esaten zuten.

Bauhausekin erlazionaturiko izenak:

Herbert Bayer, Paul Renner, Marcel Breuer, Jan Tschichold, Joost Schmidt, Mies Van der Rohe...

00.7 ESTILO INTERNAZIONALA

Suizan, gerratik aparte, Bauhausen jarraitzaileen korrante inportante bat berpiztu zen, konstruktibismoaren hainbat aurkikuntza formalekin fusionatuz. 1950 hamarkadan, Zurich eta Basilea "Diseinu Objektibo" deitutakoaren nazioarteko erreferentzia bilakatu ziren. Aurreko urteetan ez bezala, ezaugarri partikularrak edo tokian-tokikoak alde batera utzi nahi zituzten, ikuspegi globalago baten alde. Inolako sustrai historizistarik gabe, mundu moderno osoan baliogarri izan litzatekeen estilo soil eta zerebrala garatu zuten. Edozein kasutan, estrenatu berriko proiektu handi baten freskotasun osoa islatzen du.



> **Karl Gerstner.** Publizitate kartela. 1955.

Mundu moderno, aurrerakoi eta hirizalea suspertu nahi zuen estilo dotorea. Argia, gardena, baikorra, baina zertxobait aseptikoa ere bai.



> **Armin Hofmann.** Erakusketa batentzako kartela. 1961.

Ezaugarri nagusiak: espazio hutsari probetxu ateratzea, kontrastea, eta erabilitako familia tipografikoen murriztapena.

Itxuraz, oso estilo hotza da, egitura argi eta zehatzaz antolatua. Espazio huts zabalak konposizioaren parte garrantzitsu izaten dira, indar handiko elementuekin konbinatzen dituztela. Letra tipo linealak maite dituzte eta familia desberdinen oso erabilera mugatua egiten dute.

Abangoardien gehiegikeriak gaindituz, Estilo Internazionalek gizartean eta merkatuan integratutako arrazionalismoa da.

Estilo Internazionalaren eskutik, egun ohiartzun handia daukaten letra-tipoak iritsi zaizkigu: Helvetica edo Univers, kasu.



> **J. Müller-Bockmann.** Arretaz zirkulatzearen aldeko kanpainia. 1953.
Perspektibak tentsio handia ematen dio.



> **Max Huber.** *Gran Premio dell' Autodromo, Monza.* 1948.
Irudi figuratiborik gabe, esan beharrekoak linea zinetikoen bitartez adierazten dira.



> **Armin Hofmann.** Kartela. 1957.
Forma abstraktuak baina indar handikoak. Ondoan, joku tipografiko xume-xumea.

Alemanian, Ulmeko eskolaren ekarpena azpimarratu behar. Bauhaus ereduaren jarraitzaile, diseinu grafikoan oso lan aipagarriak burutu zituzten. Eskolako zuzendari Otl Aicher ibili zen. Aicher, profesional handia izateaz gain, diseinuaren teorian ausartu den autore jantzienetakoa dugu.



> **Otl Aicher.** *Munich'72, Olinpiadak.* 1970.
Munichen ospatu ziren Joku Olinpikotarako identitatea burutu zuen.
Ordurarteko olinpiaden diseinu-programa oparoena.



> **Otl Aicher.** Logotipo para *Lufthansa.* 1968.
Linealtasuna eta arrazionalismo funtzionala.

Mugimendu Modernoak XX mendeko tarte zabala hartu zuen, eta jarduera desberdinetako egileak bildu zituen: diseinu industrial, arkitektura, hirigintza, artea... Besteak beste, izen hauek aurki ditzakegu: Max Miedinger, Adrian Frutiger, J. Müller-Bockmann, Armin Hofmann, Bruno Munari, Otl Aicher, Mies Van der Rohe, Emil Ruder...